

Zangoza / 2024

# KULTUR AGENDA

## maiatza



Ayuntamiento de  
Sangüesa/Zangoza



CONSEJO DE CULTURA PALACIO DE VALLESANTORO  
VALLESANTORO



Gobierno  
de Navarra



RED DE TEATROS  
DE NAVARRA

## Vallesantoro Jauregia / Kultura-Etxea



**Kultura-zerbitzuko arreta ordutegia:** astelehenetan 9:30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa Aretoko ordutegia:** asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. **Tfnoa:** 948 870 251.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetan eska dezakezu: [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es)

Facebooken eta [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) web-orrian gure kultura-agenda jarrai dezakezu: [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es)

 [www.facebook.com/culturasanguesa](https://www.facebook.com/culturasanguesa)  [www.instagram.com/culturasanguesa](https://www.instagram.com/culturasanguesa)

## Karmengo Entzunaretoa

**Sarrerak hartzea:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik [www.sanguesacultura.es](http://www.sanguesacultura.es) eta [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) web-orrien bidez.

**Telefonoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero), ikuskizuna hasi baino ordubete lehenagotik. **Telefonoa:** 948 870 632

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua 6koa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskikunaren etena sarreraren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarria izango da.

**Beharpenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beharpenez gozatu ahal izanen zara. Gazte txartela leihatilan aurkeztu beharko da entzunaretoa sartzean.

### ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA

Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozaten ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparatirik eraman ez arren. Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

### ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO

Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin [infocultura@sanguesa.es](mailto:infocultura@sanguesa.es) posta elektronikokoan edo deitu 948870251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.

Datuak babesteko legea honakoetan kontsultatzen ahal duzu: [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es)

# KULTUR AGENDA

## maiatza



1 Az Erakusketa. "Un bosque" (ekainaren 23a bitarte)	4. Orr.
Az Erromesaldia eta jaia San Babilen	8. Orr.
2 Og Zangozako Zaindariaren Jaietako Kartelego eta Haur-literaturako lehiaketaren epearen hasiera	7. Orr.
Og Musika Eskolako akordeoi ikasle eta ikasle ohien kontzertua	7. Orr.
3 Os	
4 La Bakarrizketa. "FutbolisToc"	5. Orr.
<b>5 Ig</b>	

6 Al	
7 As	
8 Az	
9 Og	
10 Os Erakusketa. "Artea Oinez" (ekainaren 2a bitarte)	4. Orr.
11 La Udal Banda Elkartearen kontzertua zahar-egoitzan	8. Orr.
<b>12 Ig</b>	

13 Al	
14 As Musika Eskolako ikasle ohien kontzertua	7. Orr.
15 Az	
16 Og	
17 Os	
18 La Musika Eskolako Eskolako Brass-Banden bermuta Eskartxa Txarangarekin	7. Orr.

### 19 Ig

20 Al	
21 As	
22 Az Musika Eskolako ikasleen kontzertua	7. Orr.
23 Og Juul sariak ematea	8. Orr.
24 Os	
25 La Musika Eskolako ikasle ohien kontzertua	7. Orr.

### 26 Ig

27 Al	
28 Ma	
29 Az Zuretzako antzerkia. "Diez mil quinientos ochenta y cinco días"	5. Orr.
30 Og Musika Eskolako ikasleen kontzertua	7. Orr.
31 Os	

### EKAINA

1 La Euskararen Eguna 2024	8. Orr.
5 Az Zuretzako antzerkia. "Los finales no escritos"	6. Orr.
12 Az Zuretzako antzerkia "Zer daramagu emakumeok poltsoan?"	6. Orr.

# Erakusketak



## “Un bosque”

FÁBRICA DE ARTE NUEVO

MIKEL BELASCOAIN ETA HOLLY MIRANDA

### EKAINAREN 23RA BITARTE

«Baso bat» proiektuak fantasia, irudimena eta magia berreskuratzen ditu, gure beldur kolektiboak gainditzeko antidoto gisa. Mikel Belascoain artista nafarra (Pintura eta Eskultura) eta Holly Miranda artista iparramerikarra (Musika) XX. mende hasierako mugimendu artistikoetan oinarritu dira, baita Espainiako abangoardia artistikoen tradizioan ere, Picasso eta Miró kasu, eta baita Lewis Carroll (Alizia mirarien herrian) bezalako idazleen unibertso fantastikoan ere.

Proiektua burdinazko eta zurezko 7 eskultura-piezaz osatuta dago. Pieza horiek asmatu-irudi mitologia bat irudikatzen dute, eta barne-sistema robotiko bat dute, espazioarekin modu harmonikoan bat egiten duen melodia bat aktibatzen. Gainera, instalazioak 7 ipuin ditu, pieza bakoitzeko bat, eta horiek botoi bat sakatzuz entzun daitezke. Instalazio hau publiko guztiendako da eta, bereziki, familiendako.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Lorategia.

**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernu.



## Artea Oinez

### MAIATZAREN 10ETIK EKAINAREN 2RA

Nafarroa Oinez ekitaldiaren testuinguruan, Zangozako Ikastolak hainbat artistaren lanak biltzen dituen Artea Oinez erakusketaren 27. edizio liluragarria aurkezten du. Esparru artistikoan eragina duten ahots ugari parte hartzen dute edizio berri honetan. Ekitaldi horrek aniztasuna eta sormen artistikoa ospatzen dituen esperientzia aberasgarria izango dela agintzen du.

**Antolatzaileak:** Nafarroa Oinez 2024 - Nafarroako Ikastolen Federazioa.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxe Erakusketa Aretoa.



**Lorategiaren eta Erakusketaren ordutegia:** asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Larunbatetan 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

## Arte Eszenikoak Karmengo entzunaretoan



### BAKARRIZKETA

#### “FutbolisToc”

ZUHAITZ GURRUTXAGA

TXALO PRODUCCIONES

#### LARUNBATEAN, MAIATZAK 4

Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrizketa. Bertan, Realeko futbolaria gisa izandako bizipenak eta pasadizoak nahastuko ditu bere nahasmendu obsesibo-konpultsiboarekin (TOK).

Gurrutxagak erakutsiko du tresnarik handiena norbere buruaz barre egiten jakitea dela, jasaten dituen eguneroko arazoak umorez tratatuz eta erlatibizatuz.

**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.

**Iraupena:** 60 minutu.

**Ordua:** 19:30.

**Sarrerak:** 10 €.

**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea (NAS) Elkartea eta Nafarroako Gobernua.

## Zuretzako antzerkia



### «Diez mil quinientos ochenta y cinco días»

#### Poesia eta antzerkia batzen dituen antzezlan

VENTURA RUIZ. ZEROKOTAN TALDEA

#### ASTEAZKENEAN, MAIATZAK 29

**Egilea eta aktorea:** Ventura Ruiz.

**Zuzendaria:** Iosu Kabarbaien.

Badira hitz totemiko batzuk oso mingarriak izan daitezkeenak, haien esanahia gure pertzepzioari egokitzen zaienik sentitzen ez badugu. Hitz hauek barru-barrutik esandakoarekin dute zerikusia, gure lehen bizipenekin: Ama, aita, sendia... Obran zehar, Harrobi Etxea hotzean hasten den bidaiari bat kontatzen da, Ama Harria kezkarria erreferentziatuz hartuta, Gordeleku Etxeatik pasatuz, harrera-leku bero gisa, konfiantza eta segurtasun handiangoarekin mundura ateratzeko, harrien lasta astunetik aske.

# Zuretzako antzerkia



«Los finales no escritos»

**LiterArte Jaialdia**

PRODUCCIONES MAESTRAS

**ASTEAZKENEAN, EKAINAK 5**

**Dramamagintza:** Ana Maestrojuán, Iratxe Úriz, Miguel Goikoetxandia eta Yolanda Almeida.

**Zuzendaria:** Ana Maestrojuán.

**Antzerkilariak:** Izaskun Lasarte eta Ángel García Moneo.

Amaierak ez lukete idatzita egon behar... edo bai. Denok amesten dugu amaiera zoriontsu batekin, baina ez dugu uste amaiera hau dakarrenik. Bizitza baten amaiera? Maitasun baten amaiera? Edo apika sufrimendu baten amaiera?

Aurten LiterArte Jaialdiak, izenburu honekin, lau istorio biltzen ditu, axolagabe utzi ez gaituzten lau liburutatik abiatzen direnak: Kim Young-Haren «Auskalo bihar hemen jarraituko dugun», Annie Ernauxen «Emakume izoztua», Emanuel Carrereren «Aurkaria» eta «Victoria Masen» Emakume eroen dantza.

Yolanda Almeida, Iratxe Uriz, Ana Maestrojuán eta Miguel Goikoetxeandia: lau dramagile elkarrekin, «Los finales no escritos» lanean, gizakiaren sakonera garamatzaten lau istorio ehuntzen dituztenak.

**Ikusleekin topaketa,** taldearen funtzioaren ondoren, egile bat eta zuzendaria.



**Zer daramagu emakumeok poltsoan?**

(Euskarazko narrazioa)

INÉS BENGOA

**ASTEAZKENEAN, EKAINAK 12**

Zer daramagu emakumeok poltsoan? Aitortu behar dut nik neuk ere ez dakidala zer dudan poltso barruan. Beraz, egun batean, arnasa sakonki hartu ondoren poltsoa hartu eta mahaiaren gainean hustu nuen. Badakizue zer topatu nuen? Zatozte, zatozte entzutera eta den-dena kontatuko dizuet.

**Iraupena:** 60 minutu. **Ordua:** 19:30.

**Ikusleak:** gazteak eta helduak.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea.

**Sarrera doan** edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira, **maiatzaren 2az geroztik.**

Sarrerak erreserbatu ahalko dira Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948870251 telefonora deituz edo emailaz

infocultura@sanguesa.es helbidean.

**Laguntzailea:** Gobierno de Navarra.

## Lehiaketak



2024ko «Zangozako Hiria» Haur-literaturako Lehiaketa. (Hitz lauz edo bertsoz) eta Zaindariaren Jaietak Kartel Lehiaketa

Bi lehiaketetarako aurkezteko epea: maiatzaren 2tik ekainaren 3ko 14ak arte. Oinarriak eskuragai Kultura-zerbitzuan edo [www.sanguesa.es](http://www.sanguesa.es) udaleko web-orrian.



Henrike II.a Albretekoa, «Zangotzarra»,  
XXIX. Ikerkuntza- Lehiaketa

Lanak Zangoza eta zangozarrei buruzkoak izan behar dute. Lan-egitasmoen aurkezpena Zangozako Udaletxean eginen da 2024ko ekainaren 30a (barne) baino lehenago. Aurkezturiko lanak Zangotzarra Aldizkarian argitara eman litezke.

**Oinarriak:** eskatu honako helbidean [www.zangotzarra.es](http://www.zangotzarra.es)

**Antolatzailea:** Henrike II.a Albretekoa Kultura-taldea.

## Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



Zangozako «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako ikasleen kontzertuak

**MAIATZAK 14, 22, ASTEAZKENA ETA 30, OSTEGUNA**

Ordua: 19:30.



«Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako akordeoi ikasle eta ikasle ohien kontzertua

**OSTEGUNEAN, MAIATZAK 2**

Ordua: 19:30.

Kontzertuak hainbat talderekin eta «Juan Francés de Iribarren» Musika Eskolako ikasle ohiekin  
50. urteurrena dela eta

- Eskolako Brass-Banden bermuta Eskartxa Txarangarekin

**LARUNBATEAN, MAIATZAK 18**

Ordua: 12:30.

- Ikasle ohien kontzertua: Haize eta zur ensembleak eta Brass-Band perkusioarekin

**LARUNBATEAN, MAIATZAK 25.**

Ordua: 19:30.

Lekua: Karmengo Entzunaretoa.



## Zangozako talde kulturalen jarduerak



**Erromesaldia eta jaia San Babilen**

**ASTEAZKENEAN, MAIATZAK 1**

**12:00etan:** Meza Santua. Janaurrekoa. Txistor jate herrikoa.

**Antolatzailea:** Zangozako Horizonte Elkarte.



**Udal Banda Elkartearen kontzertua zahar-egoitzan**

**LARUNBATEAN, MAIATZAK 11**

**Zuzendaria:** Javier Calvo. **Iraupena:** 45 minutu.

**Ordua:** 12:00.

**Antolatzailea:** Zangozako Udal Banda Elkarte.



**Euskararen Eguna 2024**

**LARUNBATEAN, EKAINAK 1**

**9:00etan** Dianak. **11:30ean** Dantzariak. **12:00etan** Haurrendako tailerrak eta Mintzodromoa. **13:30ean** Ekitaldia. **15:00etan** Herri Bazkaria. **17:00etan** Katxi Txaranga. **20:00etan** Muxutruk! Erromeria. **23:00etan** DJ Mortx.

Ekintzak Arkupetan izango dira. Egunean zehar barra eta pintxo postua egonen da. Bazkarirako informazioa aurrerako argitaratuko da.

## Beste ekitaldi batzuk



**Hitzaldia: "Mi capacidad en la discapacidad"**

**Hizlaria:** Nacho Solla.

**OSTIRALEAN, MAIATZAK 17**

**Ordua:** 19:00.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

**Antolatzailea:** Zangozako Udalaren Gizarte Gaietarako Zinegotzigoa.



**Juul sariak ematea. Nafarroa Oinez**

**OSTEGUNEAN, MAIATZAK 23**

JUUL euskarazko irakurketa bultzatzen duen kanpaina da eta bertan ikastolen sarea osatzen duten ikastoletako ikasleek parte hartzen dute.

**Ordua:** 17:00. **Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

**Antolatzaileak:** Nafarroa Oinez – Nafarroako Ikastolen Federazioa.